

Euskal AEko hiru hiriburuek sortutako BEGd-aren % 70 baino gehiago zerbitzuen sektorearen ondorio izan da 2020an

Euskal AEko eskualde guztietan, gutxienez haren eskualdearen balio erantsi osoaren % 22 sortzen duen udalerri bat nabarmentzen da

Ekoizpen-sektoreek, 2020an, Euskal AEko hiru hiriburuetan sortutako balio erantsi gordina (BEGd), nagusiki, *Zerbitzuen* sektorearen jardueran oinarritzen da: BEGd osoaren % 91,7 dagokio, Bilboren kasuan; % 89,4, Donostiaren kasuan, eta % 70,0, Vitoria-Gasteizen kasuan, Eustatek emandako datuen arabera.

Euskal AEko hiru hiriburuaren egitura ekonomikoa Euskal AE osoarekin erkatuz gero ikusten da antzekotasun handia dagoela jarduera-sektoreei dagokienez; zerbitzuek, haietan guztietan, BEGd osoaren % 70,0 baino gehiago kontzentratzen dute. Honako zerbitzu hauek nabarmentzen dira: *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna; Merkataritza, ostalaritza eta garraioa, Higiezinaren jarduerak eta Lanbide-jarduerak.*

insertatabla_20583

Hiru hiriburuetatik, Vitoria-Gasteizko egitura ekonomikoak du erkidegoarenaren antzekotasunik handiena, Arabako hiriburuko BEGd-aren % 25,1 eta Euskal AEko % 22,8 kontzentratzen dituzten industria-jardueren ondorioz.

Eskualde bakoitzean BEGd-aren pisu handiena duten udalerriak

Euskal AEko eskualde bakoitzean BEGd-aren bolumen handiena sortzen duten udalerriak aztertuta, guztietan gailentzen da udalerri bat, eskualde osoaren % 22,0 baino gehiago kontzentratzen duena.

Arabako lurralde historikoan ikusten da eskualdeko udalerri baten BEGd kontzentrazio handiena; haietan guztietan BEGd-aren % 30,0 gainditzen da. Vitoria-Gasteiz udalerria nabarmentzen da; dagokion eskualdeko, Arabako Lautadako, BEGd-aren % 93,9 sortzen du, eta *Motordun ibilgailuen fabrikazioa* eta *Kautxuaren produktuak* ditu jarduera nabarmenenak. Baita Legutio ere; Gorbeialdeko BEGd-aren % 60,9 kontzentratzen du, besteak beste, honako jarduera hauen industria-ekoizpenari esker: *Ingeniaritza mekanikoa, Siderurgia* edo *Motordun ibilgailuetarako osagaien fabrikazioa.*

Euskal AEko eskualde bakoitzean BEG (Balio Erantsi Gordina) pisu handiena duten udalerriak. 2020

Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	100,0%	Plentzia-Mungia	100,0%	Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	100,0%
Vitoria-Gasteiz	93,9%	Mungia	42,6%	Irun	80,7%
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	100,0%	Bilbo Handia / Gran Bilbao	100,0%	Donostialdea	100,0%
Legutio	60,9%	Bilbao	41,6%	Donostia / San Sebastián	61,5%
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	100,0%	Gernika-Bermeo	100,0%	Debabarrena / Bajo Deba	100,0%
Laudio/Llodio	58,6%	Bermeo	38,0%	Eibar	41,1%
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	100,0%	Durangaldea / Duranguesado	100,0%	Debagoiena / Alto Deba	100,0%
Bernedo	49,6%	Amorebieta-Etxano	27,7%	Arrasate/Mondragón	38,6%
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	100,0%	Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	100,0%	Goierri	100,0%
Oyón-Dion	33,2%	Igorre	26,6%	Beasain	33,4%
Añana	100,0%	Markina-Ondarroa	100,0%	Tolosaldea	100,0%
Ribera Baja/Erriberabeitia	30,6%	Ondarroa	26,1%	Tolosa	29,0%
		Enkartzazioak / Encartaciones	100,0%	Urola Kosta	100,0%
		Balmaseda	22,8%	Zarautz	27,2%

Iturria: Eustat. Udal BPG

Gipuzkoan, Bidasoa Beherea eskualdean, Irun da eskualdeko BEGd-aren % 80,7 sortzen duena, nagusiki *Higiezinaren jardueretan*, *Eraikuntzan*, *Merkataritzan* eta *Salgaien garraioarekin* zerikusia duten jardueretan oinarrituta. Ondoren, Donostia / San Sebastián udalerria dago; Donostialdeko BEGd-aren % 61,5 kontzentratzen du. Eta, gero, Eibar, Debabarreneko BEGd-aren % 41,1ekin. Bi udalerri horietan presentzia handia dute zerbitzuen jarduerak.

Bizkaian, beste bi lurralde historikoekin erkatuta, BEGd kontzentrazio txikiagoa dago udalerri eta eskualdeetan; Mungia da, Plentzia-Mungia eskualdean, pisu handiena duena, eskualdeko BEGd-aren % 42,6rekin, *Material eta ekipo elektrikoaren* eta *Makineriaren* jardueri edo *Higiezinaren jardueri* esker, besteak beste. Dagokion eskualdean BEGd handiena kontzentratzen duen bigarren udalerria Bilbo da, Bilbo Handikoa, BEGd osoaren % 41,6, eta haren egitura ekonomikoa zerbitzuen sektorean oinarritzen da. Jarraian, Gernika-Bermeo eskualdean, Bermeo udalerria dago, BEGd-aren % 38,0rekin, udalerriko arrantza-jarduera handiari esker.

Ohar metodologikoa

Jarduera ekonomikoa, ekoizpen-sektoreek (lehen mailakoa, industria, eraikuntza eta zerbitzuak) sortzen duten balio erantsiaren bidez neurtua, haren ekoizpen-unitateak dauden lurraldeari lotzen zaio. Errenta, berriz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62